



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak *Siface: L' amor castrato* ekoitzi du, Filippo Minecciaren eta Nereydas taldearen kontzertu ezin ederragoa, Javier Ulises Illánen zuzendaritzapean eta Ane Pikazaren zuzendaritza artistikoarekin egindakoa

- Filippo Mineccia kontratenorrek Giovanni Francesco Grossiren bizimodu bero eta ikusgarria islatzen duten konposizioen interpretazio zirraragarria eskaintzen du; *Siface* goitizenez ezagutzen zuten Grossi, XVII. mendeko abeslari zikiratu ospetsua zena eta mendekuak bultzatuta erail zutena.
- Nereydas eta Filippo Minecciak fintasun handiz kateatzen dituzte Grossiren ibilbide profesionalarekin eta hark bizitako garaiarekin zuzeneko lotura duten hainbat aria eta interludio instrumental, pertsonaia bakar batentzako irudimenezko opera txiki bat sortuz.
- Ane Pikazak eszenaratze bisual bat planteatzen du, aurrez grabatutako irudiez, bideo-proiektzioez eta zuzeneko ilustrazioez baliatzen dena musikaren eta eszenikoa denaren arteko elkargunea bilatzeko.
- Arriaga Antzokiak ekoizpen berri hau emanaldi bakarrean estreinatuko du datorren astean; ostegunean izango da, otsailaren 2an, 19:30ean.

Bilbo, 2023ko urtarrilaren 26a. – Arriaga Antzokiak datorren astean, zehazki, otsailaren 2an, 19:30ean, ekoizpen propioko ikuskizun berri bat jarriko du agertokian.

Siface: L' amor castratoz ari gara: edertasun eta kalitate artistiko handiko proposamen bat da, delicatessen bat, ikusleei lehen mailako emanaldi batera joateko aukera emango diena. **Javier Ulises Illánek** bultzatzen eta zuzentzen duen **Nereydas** orkestraren eta **Filippo Mineccia** kontratenorraren eskutik izango da.

Kontzertua **Ane Pikazaren** zuzendaritza artistikoarekin garatzen da, zeinak diziplinen arteko solasaren aldeko apustua egiten baitu, banaka erakargarriak diren baina, batez ere, elkarrekin ongi funtzionatzen duten elementuak eta gailuak gehituz. Elementu horiek honako hauek dira: **Gheada estudiok** ikuskizun honetarako berariaz sortutako eta aurrez grabatutako irudi batzuk; lekuan bertan **Mikel Agirrezabalaga** artistak kamera eskuan duela grabatuko dituen irudien zuzeneko proiektzioa; eta **Janire Orduna Díaz** ilustratzaileak zuzenean landuko dituen tintak. Barrokoarekin jolastea, bere urrezko tintekin, bere irudi eskultorikoak bisualetara eramatea, desira, erotismoa, ohorea edo heriotza jorratzea dira pieza honetarako planteatzen diren abiapuntuetako batzuk. Bidaia bisual bat da, soinuduna eta eszenikoa: Sifaceren historiaren zerbitzura jartzen diren diziplinen elkargune bat, azken batean.

Izan ere, hori guztia musika oso berezi baten zerbitzura jarrita dago, zeinak bere letren bidez istorio sutsu eta zirrargarri bat kontatzen baitu, Giovanni Francesco Grossi (1653-1697) abeslariarena. Siface gisa ezagutzen zuten, Cavalliren "Eszipio afrikarra" operan interpretatu zuen Numidiako errege Sifaxen pertsonaiagatik. Horren ondorioz ospetsu egin zen eta goitizen hura jaso zuen. Proposamen honetan, Nereydasek, Javier Ulises Illánen zuzendaritzapean eta Filippo Minecciaren ahotsaren bidez, XVII. mendeko abeslari zikiratu harrigarrienetako baten bizitza loriatsu eta, aldi berean, ilunean murgiltzen gaitu; artistaren nortasunak eta erakargarritasunak ez zituen epel utzi bere garaikoak; izan ere, Siface Europa osoan zehar ibili zen arrakasta handia lortuz eta opera gogoangarriak estreinatuz. Gogoangarriak ere bere bizitza sutsua eta, batez ere, bere heriotza tragikoa, maitatzeak prezio bat duen leku horretara eramaten baikaitu, aske izatea pentsaezina den lekura.

Nereydasek eta Filippo Minecciak fintasun handiz kateatzen dituzte Grossiren ibilbide profesionalarekin eta hark bizitako garaiarekin zuzeneko lotura duten hainbat aria eta interludio instrumental, pertsonaia bakar batentzako irudimenezko opera txiki bat sortuz. Azken batean, *Siface: L'amor castrato* kontzertuak XVII. mendeko Europako bide eta eszenatokietan barrena egindako ibilbidea erakutsiko digu, eta baita Siface abeslari zikiratuaren emozio eta grinetan barrena egindakoa ere, zeina bere zalgurdiaren oinean mendekuz erail baitzuten sikario batzuek —bere maitearen senideek hala aginduta—, bizitzeko nahia izate hutsagatik eta maitatu izanaren arrazoi bakarragatik. Ikuskizun honetan, Ane Pikaza eszena-zuzendariak irudimenezko espazio bat planteatzen du, garai guztietan bizitako maitasunaren eta indarkeriaren ateporalitatearen durundia entzunaraziko duena.

Kritikaren bermea duen musika bikaina

Ikuskizun honetako interpretazio musikalen kalitatea benetan handia da. Baieztapen horren aldeko argudio gisa, nahikoa da *Siface: L'amor castrato* CDko grabazioa, Nereydasek eta Filippo Minecciak egindakoa, aipatzearekin. Javier Ulises Illánek zuzendutako talde instrumentalak eta kontratenorrek disko batean erregistratu zituzten Pietro Simone Agostini, Giovanni Battista Bassani, Francesco Cavalli, Antonio Giannettini, Carlo Ambrogio Lonati, Carlo Pallavicino, Bernardo Pasquini, Henry Purcell, Alessandro Scarlatti eta Alessandro Stradellaren pieza instrumental eta aria bikainak.

Filippo Minecciak bikain jasotzen du arien aukeraketa honek zeharkatzen duen emozioen segida kaleidoskopikoa, eta Nereydasek taldea enpatiaz murgiltzen da beti kolorista den ahotsen eta instrumentuen ospakizun honetan. Diskoa 2018an argitaratu ondoren, Gramophone aldizkari britainiarrak urteko onenen artean sartu zuen eta Diapason aldizkari frantsesean 5 izar lortu zituen. Orain, Arriaga Antzokiak ekoiztitako ikuskizun honetan zuzenean interpretatzeak ikusleria hunkituko du, zalantzarik gabe.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 19 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Siface L'amor castrato

Kontratenorra: **Filippo Mineccia.**
Zuzendaritza musikala: **Javier Ulises Illán.**
Orkestra: **Nereydasek.**
Zuzendaritza eszenikoa: **Ane Pikaza.**
Bisualak: **GHEADA.**

Argiztapenaren diseinua: **David Alkorta**.
Zuzeneko kamera: **Mikel Agirrezabalaga**.
Zuzeneko ilustratzailea: **Janire Orduna Díaz**.

Arriaga Antzokiaren ekoizpen berria

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus